

A watercolor-style portrait of Xabier Lete Beka, a man with a beard and mustache, looking slightly to the left. The portrait is rendered in shades of green and black, set against a dark background. The style is expressive and somewhat abstract, with visible brushstrokes and a high-contrast palette.

**Xabier Lete Beka,**  
Euskarazko  
Literatura-Sorkuntzarako  
2025ko deialdia

**Beca Xabier Lete**  
a la Creación Literaria  
en Euskera  
Convocatoria 2025



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Fundación  
**BBVA**

# AURKIBIDEA

**Aurkezpena** 3 or.

**2025eko deialdiaren oinarriak** 4 or.

1/ Xedea 4 or.

2/ Zuzkidura 4 or.

3/ Iraupena 4 or.

4/ Eskatzaileak 5 or.

5/ Dokumentazioa 5 or.

6/ Eskaerak aurkezteko epea 7 or.

7/ Aukeraketa-prozesua 7 or.

8/ Ebazpena 8 or.

9/ Beka formalizatzea 8 or.

10/ Beka ordaintzea 9 or.

11/ Proiektuaren garapena 9 or.

12/ Proiektuaren emaitzak zabaltzea 10 or.

13/ Oinarriak onartzea 11 or.

# ÍNDICE

**Presentación** p. 3

**Bases de la convocatoria 2025** p. 4

1/ Objeto p. 4

2/ Dotación p. 4

3/ Duración p. 4

4/ Solicitantes p. 5

5/ Documentación p. 5

6/ Plazo de presentación de solicitudes p. 7

7/ Proceso de selección p. 7

8/ Resolución p. 8

9/ Formalización de la beca p. 8

10/ Pago de la beca p. 9

11/ Desarrollo del proyecto p. 9

12/ Difusión de los resultados del proyecto 10

13/ Aceptación de las bases p. 11



## AURKEZPENA

Eusko Jaurlaritzak eta BBVA Fundazioak sustatutako **Xabier Lete Bekaren** helburua euskarazko literatura-sorkuntza sustatzea da, euskal idazleei aukera emanaz urte bat oso-osorik beren literatura-proiektuari eskaintzeko.

2024an, beka honen lehen deialdia egin zen, egileei, denbora batez, asmo edo konplexutasun handiagoko lanei ekin ahal izateko baldintza ekonomikoak eskaintzeko. Sendotze prozesuan dauden pertsonen zuzenduta dago, beren talentu literarioaren garapena errazteko eta arlo horretan aurrerapen argia bultzatzeko.

Beka honen oinarrian bi erakundeek talentu sortzailea bultzatzeko duten konpromisoa dago. Euskal Herriarekin eta hizkuntzarekin duten konpromisoari ere erantzuten dio. Globalizazioa gero eta handiago den testuinguru honetan, hizkuntza minoritario batean kultura sortu eta ekoizteko dauden zailtasunak ezagututa, Eusko Jaurlaritzak eta BBVA Fundazioak euskarazko literatura-sorkuntzara bideratutako beka honen edizio berri bat plazaratu dute, euskal literaturak bizi duen gero eta aniztasun eta kalitate handiagoko dinamikari beste ekarpen bat egiteko.

## PRESENTACIÓN

La **Beca Xabier Lete**, promovida por el Gobierno Vasco y la Fundación BBVA, está destinada a impulsar la creación literaria en euskera, ofreciendo a escritoras y escritores en lengua vasca la posibilidad de dedicar un año íntegramente a su proyecto literario.

En 2024 se lanzó la primera convocatoria de esta beca cuyo objetivo es procurar a las y los autores, durante un tiempo, condiciones económicas que permitan abordar trabajos más ambiciosos o de mayor complejidad. Se dirige a personas con una trayectoria en proceso de consolidación, con el ánimo de facilitar el desarrollo de su talento literario y propiciar un claro avance en ese campo.

Esta beca se inscribe en el compromiso de ambas instituciones por el apoyo al talento creativo. Responde también a un compromiso con el País Vasco y con su lengua propia. Conociendo las dificultades a las que se enfrentan, en un contexto de creciente globalización, la creación y producción cultural en una lengua minoritaria, el Gobierno Vasco y la Fundación BBVA lanzan una nueva edición de esta beca destinada exclusivamente a la creación literaria en euskera, como una aportación más a la dinámica de la creciente diversidad y calidad que vive la literatura vasca.

2025eko otsailaren 10

10 de febrero de 2025

# 2025eko DEIALDIAREN OINARRIAK

## 1/ Xedea

Deialdi honen xedea da urtero beka bat ematea beren ibilbidea sendotzeko prozesuan dauden idazleei, jatorrizko eleberri bat euskaraz sor dezaten.

Egile bat bere ibilbidea sendotzeko prozesuan dagoela ulertuko da gutxienez literatur lan bat euskeraz argitaratu eta merkaturatu badu. Kanpoan geratzen dira autoeditatutako lanak, hala edizio fisikoan nola digitalean.

## 2/ Zuzkidura

Urtero beka bat emango da, **70.000 euro gordinekoa**.

Bekaren finantzaketa onartutako proiektua garatzeko erabili behar da, dedikazio eskusiboarekin.

Beka indarrean dagoen legeriak ezartzen dituen zergei lotuta egongo da, eta zerga horiek dagokion diru-horniduratik kenduko dira.

Beka hau ez da, inola ere, jadanik egindako proiektuetarako sari edo laguntza izango.

## 3/ Iraupena

Xabier Lete Beka garatzeko epea **hamabi hilabetekoa** izango da, beka onartzen denetik aurrera. Bekaren xede den proiektuak amaituta egon behar du aldi hori bukatzean.

# BASES DE LA CONVOCATORIA 2025

## 1/ Objeto

El objeto de la presente convocatoria es la concesión de una beca anual a escritoras o escritores de trayectoria en proceso de consolidación, para la creación de una novela original en euskera.

Se considerará que una autora o un autor tienen una trayectoria en proceso de consolidación cuando se trate de personas que hayan publicado y comercializado al menos una obra literaria en euskera. Quedan excluidas las obras autoeditadas, tanto en edición física como digital.

## 2/ Dotación

Anualmente se concederá una beca, dotada con **70.000 € brutos**.

La financiación con la que se dota la beca debe dedicarse al desarrollo del proyecto aprobado, con dedicación exclusiva.

Dicha beca estará sujeta a aquellos impuestos que estipule la legislación vigente, los cuales serán deducidos de la correspondiente dotación económica.

En ningún caso esta beca tiene el carácter de premio o ayuda a proyectos ya realizados.

## 3/ Duración

La Beca Xabier Lete tiene un plazo de desarrollo de **doce meses**, a contar desde la aceptación de la misma. El proyecto objeto de la beca debe estar completado al finalizar este periodo.



## 4/ Eskatzaileak

Xabier Lete Beka pertsona fisikoek baino ezin dute eskatu. Adin nagusikoak izan behar dute, eta lan-bizitzako aldian egon.

Oro har, beka hau bateraezina da sorkuntzarako beste edozein bekarekin.

## 5/ Dokumentazioa

Eskatzaile bakoitzak eskabide bakarra aurkeztu ahal izango du deialdi honetan, eta **euskaraz** aurkeztu beharko du.

Eskabide guztiak [beca-XabierLete@fbbva.es](mailto:beca-XabierLete@fbbva.es) helbide elektronikoan aurkeztu behar dira, mezuaren gaiari [eskabide-orrian](#) agertzen den eskatzailearen izena adierazita.

Gainera, honako dokumentazio hau bete edo erantsi beharko da PDF formatuan:

### a) Identifikazio-datuak

- Eskabide-orria behar bezala sinatuta eta beteta.
- Eskatzailearen NANaren kopia, bi aldeetatik, edo pasaportearen kopia.
- Gutxienez obretako baten jabetza intelektualaren erregistroaren ziurtagiria, bere ibilbidean editatu dela egiaztatzen duena, baita edizioaren egiaztatzea edo obraren jabetza intelektualaren erregistroan inskribatzeko eskaera ere.

## 4/ Solicitantes

Sólo pueden solicitar la Beca Xabier Lete personas físicas, mayores de edad y en período de vida laboral.

Con carácter general, esta beca es incompatible con cualquier otra beca destinada a la creación.

## 5/ Documentación

Cada solicitante podrá presentar una única solicitud en **euskera** a la presente convocatoria.

Todas las solicitudes se presentarán exclusivamente a través de la dirección de correo electrónico [beca-XabierLete@fbbva.es](mailto:beca-XabierLete@fbbva.es), indicando en el asunto del mensaje el nombre del solicitante incluido en el [impreso de solicitud](#).

Además, deberá cumplimentar y/o adjuntar la siguiente documentación en formato PDF:

### a) Datos identificativos

- Impreso de solicitud debidamente firmado y cumplimentado.
- Copia del DNI por ambas caras o pasaporte del solicitante.
- Certificado de registro de propiedad intelectual de por lo menos una de las obras que acredite como editada en su trayectoria, así como acreditación de su edición o la solicitud de inscripción en el registro de la propiedad intelectual de la obra.

**b) Eskatzaileari buruzko informazioa**

- Eskatzailearen ibilbidearen laburpena (gehienez DIN A4 orrialde 1).

**c) Proiektuari buruzko informazioa**

- Garatzen ari den obraren lagina (DIN A4 neurriko 3 orrialde gutxienez eta 5 gehienez).
- Proiektuaren azalpen-memoria (DIN A4 neurriko 5 orrialde gehienez, lerroarte bikoitzarekin), honako hauek jasoko dituenak:
  - Proiektuaren laburpena.
  - Proiektuaren interesa eta ekarpena.
  - Lan-plana eta gauzatze-egutegia.
  - 70.000 euro gordineko aurrekontu banakatua. Bertan, ikerketengatik egindako gastuak jasoko dira, hala nola ikerketetatik egindako lekualdatzeak eta egonaldiak, erositako dokumentazioa edo liburuak, datu-baseetarako, aldizkarietarako edo bestelako dokumentaziorako sarbideak, sorkuntza-ordainsariak, zerga-aholkularitza, etab. Bekaren zati bat inbertsiorako erabiltzen bada (ordenagailua, disko gogorrak...), hori ez da inoiz izango bekaren % 10 baino handiagoa.

Informazio-bloke honetan ez da agertuko eskaera aurkezten duen pertsona identifikatzeko elementurik.

Eskatutako dokumentuak falta direla edo horietan forma-akatsak daudela ikusiz gero, BBVA Fundazioak interesdunari eskatuko dio hamar egun naturaleko epean akatsa zuzentzeko edo dagozkion dokumentuak aurkezteko. Eskatutako dokumentazioa aurkeztu ezean, eskaeran atzera egin duela edo izapidetzeko eskubidea galdu duela ulertuko da.

**b) Información relativa al solicitante**

- Resumen de la trayectoria de la persona solicitante (máximo 1 página DIN A4).

**c) Información relativa al proyecto**

- Muestra de la obra en desarrollo (mínimo 3 y máximo 5 páginas DIN A4).
- Memoria explicativa del proyecto (máximo 5 páginas DIN A4 a doble espacio) que incluya:
  - Resumen del proyecto.
  - Interés y aportación del proyecto.
  - Plan de trabajo y calendario de ejecución.
  - Presupuesto desglosado de 70.000 euros brutos, donde se incluyan los gastos derivados de investigaciones como traslados y estancias de investigación, documentación o libros adquiridos, accesos a bases de datos, revistas u otro tipo de documentación, honorarios de creación, asesoría fiscal, etc. En caso de que parte de la beca se destine a inversión (ordenador, discos duros...), esta nunca será superior al 10% del citado importe.

En este bloque de información no deberá aparecer ningún elemento identificativo de la persona que presenta la solicitud.

En el supuesto de que se aprecie la falta de documentos requeridos o defectos formales en aquellos, la Fundación BBVA requerirá a la persona interesada que en el plazo de diez días naturales subsane la falta o acompañe los documentos correspondientes. En caso de no presentación de la documentación requerida se le tendrá por desistida su petición o decaída en su derecho al trámite.



## 6/ Eskaerak aurkezteko epea

Eskabideak aurkezteko epea **2025eko otsailaren 10ean ireki eta 2025eko apirilaren 10ean amaituko da, 13:00etan**, Espainiako penintsulako orduan.

## 7/ Aukeraketa-prozesua

Deialdia egin duten erakunde bien arteko lankidetzaren instituzionalaren jarraipena egiteko Batzorde Mistoak Adituen Batzorde bat izendatuko du, zeinak baloratuko baititu onartutako eskabideak, eta beka merezi duen literatura proiektua hautatuko baitu, honako irizpide hauen arabera:

- Eskatzailearen curriculum-profila eta aurretik egindakoak (% 40).
- Proposamenaren originaltasuna eta kalitatea (% 60)

Batzordeko kideek bi fasetan egingo dute balorazioa; lehenengo fasean, literatura proiektua baloratuko dute, eta, bigarren fasean, eskatzailearen ibilbidea.

Adituen Batzordeak independentzia osoz jardungo du, aplikatu beharreko irizpide onenei jarraikiz.

Batzorde Mistoak, Adituen Batzordeak egindako hautaketari jarraikiz, beka esleituko du.

Batzorde Mistoaren eta Adituen Batzordearen eztabaidak konfidentzialak izango dira.

## 6/ Plazo de presentación de solicitudes

El plazo de presentación de solicitudes **se abrirá el 10 de febrero de 2025 y finalizará el 10 de abril 2025 a las 13:00 horas**, hora peninsular española.

## 7/ Proceso de selección

Un Comité de expertas y expertos, que será designado por la Comisión Mixta de seguimiento de la colaboración institucional entre ambas entidades convocantes, será quién valore las solicitudes aceptadas y seleccionará el proyecto literario merecedor de la beca atendiendo a los siguientes criterios:

- Perfil curricular y realizaciones previas de la persona solicitante (40%)
- Originalidad y calidad de la propuesta (60%)

Los miembros del Comité realizarán la valoración en dos fases: en una primera fase valorarán el proyecto literario y en una segunda fase la trayectoria de la persona solicitante.

El Comité actuará con completa independencia, ateniéndose a los mejores criterios aplicables.

La Comisión Mixta, siguiendo la selección realizada por el Comité, adjudicará la beca.

Tanto las deliberaciones de la Comisión Mixta como del Comité tendrán carácter confidencial.

## 8/ Ebazpena

Deialdiaren ebazpena gehien jota **2025eko uztailaren 15rako** argitaratuko da. Deialdia hutsik geratu ahal izango da, eta batzordearen erabakia apelaezina izango da.

Ebazpena [Eusko Jaurlaritzaren](#) webgunean eta [BBVA Fundazioaren](#) webgune ofizialean argitaratuko da.

Hautatuak izan ez diren eskatzaileekin ez da inolako korrespondentzia edo komunikazio gehigarririk izango.

Inola ere ez da informazio bereizirik edo indibidualizaturik emango jasotako eskaerei buruz, ezta ebaluazio-batzordearen eztabaidei buruz ere.

## 9/ Beka formalizatzea

Bekaren onuradunak **2025ko uztailaren 31a baino lehen** sinatu beharko du BBVA Fundazioak helarazten dion onarpen-konpromisoa, eta, horrela, hasiera emango dio literatura-proiektua garatzeko hamabi hilabeteko aldiari.

Salbuespengisa, eta onuradunaren lan-egoeraren arabera, ez da lan-esklusibotasunik aplikatuko konpromisoa sinatu ondoko hiru hilabeteetan, dagozkion kudeaketak egin ahal izan ditzan.

Onuradunak beka onartzeko konpromisoa sinatzea ezinbesteko baldintza izango beka jasotzeko.

## 8/ Resolución

La resolución de la convocatoria se hará pública no más tarde del **15 de julio de 2025**. La convocatoria podrá declararse desierta y la decisión de la comisión será inapelable.

La resolución se hará pública en el sitio web del [Gobierno Vasco](#), así como en la web oficial de la [Fundación BBVA](#).

No se mantendrá correspondencia o comunicación adicional alguna con las personas solicitantes que no hayan sido seleccionadas.

En ningún caso se facilitará información desagregada o individualizada sobre las solicitudes recibidas, ni sobre las deliberaciones del Comité de expertas y expertos.

## 9/ Formalización de la Beca

El beneficiario de la beca deberá suscribir **antes del 31 de julio de 2025** el compromiso de aceptación que la Fundación BBVA le traslade, dando comienzo al periodo de doce meses para el desarrollo del proyecto literario.

Excepcionalmente, y en función de las circunstancias laborales de la persona beneficiaria, no se aplicará la exclusividad laboral durante los tres meses posteriores a la suscripción del compromiso, con el fin de que pueda realizar las gestiones oportunas.

La firma del compromiso de aceptación por parte de la persona beneficiaria será condición indispensable para la percepción de la beca concedida.





## 10/ Beka ordaintzea

Oro har, beka hiru zatitan ordainduko da:

- % 50 hasieran, onarpen-konpromisoa formalizatu ondoren;
- % 40 proiektuaren garapenaren erdian, aldeztu aurretik tarteko memoria bat aurkeztuta; eta
- gainerako % 10a, sortzen den obra entregatzen denean. Horrekin batera, egindako jarduerak eta emaitzak deskribatzen dituen azken memoria aurkeztu beharko da, baita gauzatuak aurrekontua eta aurrekontu hori justifikatzeko agiriak ere.

Hori guztia horrela aplikatuko da, salbu eta justifikatzen bada proiektuaren finantzaketa beste denbora-banaketa batekin erabiltzeko beharra.

## 11/ Proiektuaren garapena

Proiektuaren garapenean zehar proiektua nabarmen aldatzea dakarten zirkunstantziak sortzen badira, bekaren onuradunak ahalik eta lasterren jakinarazi beharko dio BBVA Fundazioari, eta horrek, Batzorde Mistoari eta Eusko Jaurlaritzari kontsulta egin ondoren, interesdunari jakinaraziko dio aldaketa onartzen duen ala ez.

Beka-aldia amaitzean, onuradunak 30 egun naturaleko epean bidaliko dio BBVA Fundazioari bekaren indarraldian garatutako obra eta proiektuaren amaierako memoria.

## 10/ Pago de la beca

Con carácter general, la beca se hará efectiva en tres pagos:

- 50% al inicio, tras la formalización del compromiso de aceptación;
- Un 40% a la mitad del desarrollo del proyecto, previa presentación de una memoria intermedia; y
- El 10% restante a la entrega de la obra resultante, junto con la presentación de una memoria final descriptiva de las actividades realizadas y resultados, así como del presupuesto ejecutado y documentos justificativos del mismo.

Todo ello, salvo que se justifique la necesidad de contar con una distribución temporal distinta de la financiación del proyecto.

## 11/ Desarrollo del proyecto

En caso de que en el desarrollo del proyecto surgieran circunstancias que supongan una modificación significativa de aquel, la persona beneficiaria de la beca deberá comunicarlo a la mayor brevedad posible a la Fundación BBVA, que, tras la consulta correspondiente a la Comisión Mixta y al Gobierno Vasco, comunicará a la persona interesada su aceptación o rechazo.

A la conclusión del periodo de disfrute de la beca, el beneficiario enviará la Fundación BBVA en el plazo de 30 días naturales la obra desarrollada en el período de vigencia de la beca y la memoria final del proyecto.

## 12/ Proiektuaren emaitzak zabaltzea

Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak eta BBVA Fundazioak bekadunaren lankidetzak eskatu ahalizango dute Xabier Lete Bekaren emaitza gizarteari ezagutarazteko jardueretan. Laguntza hori eskatu ondoren, onuradunak jarduera horietarako beharrezkoa den informazioa eta dokumentazioa emango die BBVA Fundazioari eta Kultura eta Hizkuntza Politika Sailari, eta doan lagako ditu hori [www.fbbva.es](http://www.fbbva.es) edo [www.euskadi.eus](http://www.euskadi.eus) web-orriaren zein antzekoen bidez zabaltzeko eskubideak, erakunde deitzaileek horretarako eskatzen dizkieten baimenak sinatuz.

Lana argitaratzen denean, Xabier Lete Beka jaso dela adieraziko da "Eusko Jaurlaritzak eta BBVA Fundazioak sustatutako Xabier Lete 2025 Bekari esker sortu da literatur lan hau" testuaren bidez.

## 12/ Difusión de los resultados del proyecto

El Departamento de Cultura y Política Lingüística del Gobierno Vasco y la Fundación BBVA podrán solicitar la colaboración de la persona becada en actividades de difusión a la sociedad del resultado de la beca Xabier Lete. Solicitada dicha colaboración, la persona beneficiaria facilitará a la Fundación BBVA y al Departamento de Cultura y Política Lingüística la información y documentación necesarias para dichas actividades y cederá gratuitamente los derechos oportunos para su difusión a través de la página web [www.fbbva.es](http://www.fbbva.es) o [www.euskadi.eus](http://www.euskadi.eus) u otros canales similares, suscribiendo las autorizaciones que se le requieran a tal efecto desde las instituciones convocantes.

Cuando la obra sea publicada, se hará constar la recepción de la Beca Xabier Lete mediante la leyenda "Esta novela ha sido creada gracias a la Beca Xabier Lete 2025, promovida por el Gobierno Vasco y la Fundación BBVA".



### 13/ Oinarriak onartzea

Deialdian, datu pertsonalak babesteari buruz indarrean dagoen legerian adierazitakoa beteko da.

Deialdi honetan parte hartzeak berekin dakar deialdiaren oinarriak eta ebazpena onartzea (apelaezina izango da), bai eta edozein erreklamazio motari uko egitea ere.

Salbuespen gisa, eta behar bezala justifikatutako arrazoiengatik, Eusko Jaurlaritzak eta BBVA Fundazioak deialdiaren eta oinarrien baldintzak aldatzeko eskubidea izango dute, aldeaz aurretik aurreikusi ezin diren inguruabarretara egokitzeko, baina horrek ez du ekarriko deialdiaren funtsezko aldaketarik, ezta aldaketa arbitrariorik ere.

Deialdi hau indarrean dagoen bitartean, oinarrien testua eta [ohiko galderen](#) dokumentua Eusko Jaurlaritzaren eta BBVA Fundazioaren [www.euskadi.eus](http://www.euskadi.eus) eta [www.fbbva.es](http://www.fbbva.es) webguneetan eskuragarri egongo dira.

### 13/ Aceptación de las bases

En la convocatoria se cumplirá con lo indicado en la legislación vigente sobre protección de datos de carácter personal.

El hecho de concurrir a la presente convocatoria supone la aceptación de sus bases y de su resolución, que será inapelable, así como la renuncia a cualquier tipo de reclamación.

Excepcionalmente, y por motivos debidamente justificados, el Gobierno Vasco y la Fundación BBVA se reservan el derecho de modificar los términos de la convocatoria, de las bases a fin de adaptarse a circunstancias no previsibles con antelación, sin que ello suponga una alteración sustancial ni arbitraria del mismo.

El texto de las bases, así como el documento de [preguntas frecuentes](#), cuya lectura se recomienda a las personas solicitantes, estarán disponibles durante el plazo de vigencia de la presente convocatoria en el siguiente sitio web del Gobierno Vasco, [www.euskadi.eus](http://www.euskadi.eus), y de la Fundación BBVA, [www.fbbva.es](http://www.fbbva.es).

**Xabier Lete Beka,  
Euskarazko  
Literatura-Sorkuntzarako**

2025ko deialdia

**Beca Xabier Lete  
a la Creacion Literaria  
en Euskera**

Convocatoria 2025

**Informazio gehiago:**

**BBVA FUNDAZIOA**  
San Nikolas eraikina  
San Nikolas plaza, 4  
48005 Bilbo

Salamancako markesaren jauregia  
Recoletos pasealekua, 10  
28001 Madrid

[www.fbbva.es](http://www.fbbva.es)  
[beca-XabierLete@fbbva.es](mailto:beca-XabierLete@fbbva.es)

**Más información:**

**FUNDACIÓN BBVA**  
Edificio San Nicolás  
Plaza de San Nicolás, 4  
48005 Bilbao

Palacio del Marqués de Salamanca  
Paseo de Recoletos, 10  
28001 Madrid

[www.fbbva.es](http://www.fbbva.es)  
[beca-XabierLete@fbbva.es](mailto:beca-XabierLete@fbbva.es)